



## 3 minutura arteko ikus-entzunezko edukiak sortzeko lehiaketa

### [1] DESKRIBAPENA

“ZiNaizen” lehiaketara gonbidatzen zaitugu. Trans adingabeen istorioak saritu nahi ditu 3 minuturainoko ikus-entzunezko edukiak sortuz. Naizen ATF Elkarteak egiten du deialdia, Zinegoak Jaialdiarekin batera, eta ikus-entzunezko lan onenaren saria 2025eko Zinegoak jaialdian emango da.

Ikus-entzunezko adierazpenaren bidez, “ZiNaizen”-en helburua da adingabe transexualen esperientziei, bizipenei, erronkei eta garaipenei buruz gizartea sentsibilizatzea. Aldi berean, adingabe transexualen oinarritzko eskubideak errespetatzearen eta babestearen garrantziaz kontzientzia piztu nahi du.

Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte, profesionala zein zaletua, edozein nazionalitatekoa. Transexualitateari buruzko istorio bat baduzu, hau zure espazioa da! Aurkeztu beharreko lanek edozein genero eta ikus-entzunezko formatu esplora dezakete, baldintza bakarra iraupena da: ezin du 3 minutu baino gehiago iraun.

“ZiNaizen”-en bidez, zinemaren bidez hausnarketa, elkarrizketa eta adierazpena uztartuko dituen espazio bat sortu nahi dugu. Adingabe transexualekiko onarpena, errespetua eta sentsibilizazioa sustatu nahi ditugu. Gainera, zure sormena eta talentua bultzatu nahi ditugu, gai horiei modu zirrargarri eta originalean heltzera animatuz. Bat egin “ZiNaizen”-ekin eta lagundu mundu inklusiboagoa eta errespetuzkoagoa eraikitzen ikus-entzunezko irudiaren boterearen bitartez!

### [2] LEHIAKETAREN HELBURUAK

- Transexualitatea gure gizartean dagoen errealitate gisa ikusaraztea eta aitortzea, eta adingabe transexualekiko errespetua eta inklusioa sustatzea.
- Adingabe transexualen esperientzien, bizipenen eta borroken inguruan gizartea sentsibilizatzea,

haien eskubideak errespetatzeko eta babesteko beharraren kontzientzia sortzeko.

- Ikus-entzunezko sortzaileen sormena eta talentua sustatzea, haur eta gazte transexualen problematikak eta aniztasuna modu sortzaile eta originalean azter ditzaten.

### [3] LEHIAKETAN LANTZEN DEN GAI ESPEZIFIKOA

- Transexualen esperientzia haurtzaroen eta gaztaroen, eta gizarteko hainbat eremutan dituzten erronkak, hala nola, familian, eskolan, osasunean, harremanetan eta aisialdian.
- Adingabe transexualek zerbitzu eta baliabideetarako sarbidean dituzten oztopoak, hala nola arreta medikoan, hezkuntzan eta kirolean.
- Adingabe transexualen sexu-identitatea legez aitortzeak duen garrantzia, eta adingabe transexualen benetako nortasuna islatzen duten legezko agiriak lortzeko dituzten oztopoak.
- Berdintasunaren eta justiziaren aldeko borroka adingabe transexualentzat, eta ildo horretan egiten ari diren ekimenak.

### [4] LEHIAKETAREN OINARRIAK

- a) Parte-hartzaileak: Haur eta gazteen transexualitatea lantzen edo erakusten duten ikus-entzunezko edukiak garatu dituzten 18 urtetik gorako pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute, baldin eta originalak badira eta ez badira komertzialki estreinatu jaialdia egin aurretik.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 3 obra aurkez ditzake.

Baldintza guztiak betetzen ez dituzten ikus-entzunezko lanak ez onartzeko eskubidea gordetzen du lehiaketak, hala nola, antolakuntzak ezarritako irizpidearekin bat ez datozenak.

- b) Obren iraupena: ikus-entzunezko lanek ezin izango dute hiru minutu baino gehiago iraun, hasierako eta amaierako gortinak barne.
- c) Formatua: Ikus-entzunezko edukiak formatu digitalean sortu behar dira. Fitxategiaren azken tamainak 900 MB izan behar ditu gehienez, 1920x1080 px-ko leiho-zabalerarekin (FHD).
- d) Hizkuntza: Euskarazko eta/edo gaztelaniazko ikus-entzunezko lanak, euskarazko eta/edo gaztelaniazko azpitoluekin edo azpitolurik gabe.
- e) Inskripzioa: Lan batek “ZiNaizen”-en aurre-hautaketa fasean parte hartu ahal izateko, 2025eko apirilaren 13a baino lehen bidali beharko da. Honako hauek jaso beharko ditu:
- Izena online emateko fitxa, helbideak, ekoizpenak edo aurkezten duen pertsona fisikoak behar bezala beteta eta sinatuta edo zigilatuta.
  - Oharra: Inskripzio bat ere ez da onartuko behar bezala beteta ez badago.
  - Obra bakoitza inskripzio-fitxako datuetan agertzen den pertsona fisikoaren izenean erregistratuko da. Antolatzaileek auresuposatzen dute pertsona horrek dituela aurkeztutako obraren gaineko eskubideak, eta, beraz, ez du bere gain hartuko lehiakideek kontu honetatik eratorritako erantzukizunik. Izena emateko fitxaren datuetan agertzen den pertsona fisikoa eta obra zuzentzen duena bi pertsona desberdin badira, sariaren onuraduna ikus-entzunezko lana zuzentzen duena izango da.
- Parte-hartzaileek lehiaketaren antolakuntzari lagatzen dizkiote hautatutako lanak osorik edo partzialki erakusteko eskubideak, eta ez dira inola ere komertzialki ustiatuko.
- Ikus-entzunezko lanaren fitxa teknikoa eta artistikoa.
  - Ikus-entzunezko lanaren gaineko eskubideen titularra den pertsona fisikoaren NANaren fotokopia.
- f) Hautaketa-batzordea eta epaimahaia
- “ZiNaizen”-ek Hautaketa Batzordearen eta epaimahaiaren osaera erabakiko du. Organo horiek zinematografiarekin eta/edo LGTBIQ+ aktibismoarekin lotutako pertsonak osatuko dituzte, eta haien erabakiak apelaezinak izango dira.
  - EPAIMAHAIA: Epaimahaia ikus-entzunezko profesionalek, Naizenen ordezkari batek eta Zinegoak jaialdiaren ordezkari batek osatuko dute, eta horiek aukeratuko dute ikus-entzunezko lan irabazlea.
- g) Ebaluazio-prozesua:
- Deialdia eta harrera: 2025eko apirilaren 13ra arte.
  - Hautatutako ikus-entzunezko lanen jakinarazpena: 2025eko maiatzaren 5a.
  - Ikus-entzunezko lan irabazlearen komunikazioa: Zinegoak 2025 Itxiera Galan.
- h) Saria: Saria 1.000 €-koa izango da, zergak barne. Faktura aurkeztuta gauzatuko dira.
- i) “ZiNaizen” zabaltzeko komunikabideetan hautatutako ikus-entzunezko edukien irudien 90 segundo erabili ahal izango ditu gehienez.
- j) Hautatutako parte-hartzaileen betebeharrak: Hautaketa ofizialeko filmen arduradunek konpromiso hauek hartuko dituzte: Proiekzioaren kopia ematea (Bluray, H264 edo DCP) 2025eko maiatzaren 16a baino lehen. Proiekzio-kopia osatugabeak, egoera txarrekoak edo kalitate txarrekoak ez dira onartuko, ezta oinarri hauetan adierazitako formatutakoak ez badira. Bidali hiru fotograma, Ikus-entzunezko lanaren kartela, zuzendariaren argazkia (300 ppp). Kopia azpitoluak izanez gero, bidali ere bai:
- Azpitoluak artxibatzea (srt) eta/edo elkarrizketa-zerrenda gaztelaniaz/euskaraz.
  - Filmaren trailerra .mov, .mp4, H 264, Full HD (1080) artxiboan, azpitolurik gabe.
- Proiekzio-kopia helbide honetan bidali ahal izango dira: [www.naizen.eus](http://www.naizen.eus)
- Lehiaketaren antolatzaileek ez badituzte eskatutako materialak epe barruan jasotzen, ikus-entzunezko lana lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea izango dute. Behin “ZiNaizen” lehiaketan parte hartzeko aukeratua bada, film bakar bat ere ezin izango da erretiratu, Zinegoak 2025 Jaialdiaren Itxiera Galan azken proiektzioa egin baino lehen.
- k) Komunikazioa: Lehiaketaren emaitza eta sari-banaketa ekainaren 21ean egingo da, 17:30ean, BBK-Bilbao aretoan.
- l) Lehiaketa honetan irabazi duen ikus-entzunezko lanaren publizitate osoan “ZiNaizen” lehiaketaren antolatzaileek ematen dituen irudia eta logotipoak erakutsi behar dira.
- m) Oinarri hauek euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu dira. Zalantzarik, desadostasunik edo anbiguotasunik izanez gero, gaztelaniazko bertsioak izango du azken hitza.
- n) Oinarriak onartzea: “ZiNaizen”-en parte hartzeak oinarri hauek eta Naizen-en taldeak har ditzakeen erabakiak erabat onartzea dakar.